



Ebazpena, 2024ko urriaren 7koa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behinean ebazten baita Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegi Klinikako zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko merezimendu-lehiaketa espezifikoa. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2024ko ekainaren 12ko Aginduaren bidez egin zen lehiaketa horretarako deialdia.

AURREKARIAK

- 1.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2024ko ekainaren 12ko Aginduaren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzan Auzitegi Klinikako zerbitzuburuaren lanpostu bat betetzeko berriazko lehiaketarako deialdia egin zen.
- 2.- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta Balorazio Batzordea bildu ondoren, behin-behineko ebazpena eman da, deialdiaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 20. artikuluan eta 12. xedapen gehigarrian, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabideak jartzea esleitzen dio Justizia eta Giza Eskubideen Sail berriari, eta ezartzen du desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Saileko organo eta unitateek osatuko dutela Justizia Administrazioa.

18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, Jaurlearitzaren Lehendakaritzaren eta Jaurlearitzako sailen egitura eta egitekoak finkatzen dituzten arau organikoek indarrean jarraituko dute.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 12.1 artikulua Justizia Administrazioari Zuzendaritzari esleitzen dizkio Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloko hainbat eginkizun, hainbat esparrutako langileen politikaren zuzendaritza barne.

Bigarrena.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2024ko ekainaren 12ko Aginduaren 7. artikulua ezartzen duenez, deialdia behin-behinean ebatziko du Justizia Administrazioari zuzendariak.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitara ematea Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegi Klinikako zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko berariazko lehiaketaren behin-behineko ebazpena. Lehiaketa horretarako deialdia 2024ko ekainaren 12ko Aginduaren bidez egin zen.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea irekitzea, argitaratzen denetik hasita. Erreklamazioak Justizia Administrazioari bidali behar zaizkio, erregistro elektronikoro korren bidez.

Epe horretan bertan uko egin ahal izango zaio behin-behinean esleitutako destinoari eta, beraz, lehiaketan parte hartzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 7a

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS

ERANSKINA

Zbk.	Interesduna	Jatorrizko lanpostua	Antzinasuna gehienez 60	H.E.	Merezimendu orokorrak	Funtzioak (hila* 0,25 puntu)	Gehieneko prestakuntza, gehienez 14	Argitalpenak, gehienez 14	Merezimendu espezifikoak	Merezimenduak guztira	Lanpostuko/ Dotazioko	Esleitutako lanpostua
1	Baigorri Soler, M ^a Carmen	230002/1 AMEE Gipuzkoa-Psikiatriako mediku aditua	42,5944385		42,594439	10	0	0	10	52,5944385	210002/1	AMEI - Gipuzkoako Zuzendariordetza. Auzitegiko Klinika Zerbitzuko burua